

Bidetik eta asko ibili eta gero basurde batekin topatu ziren:

- Egun on Basurde Jauna. Ez duzu hemendik ikusi opari multzo handi bat? Galdetu zion Olentzerok.
- Ez hemendik oso lasai egon da gaua eta ez dut ezer ikusi.

Olentzerok basurdeari opariak lapurtu egin zituztela kontatu zion.

Basurdea oso triste geratu zen eta Olentzerorekin joan zen opariak bilatzera.

Ordu batzuk menditik ibili eta gero opariak topatu gabe untxi txiki batekin topatu ziren.

- Untxitxu ikusi duzu hemendik opari multzo handi bat?
- Ez hemendik ez dut ezer ikusi. Erantzun zion untxiak.

Untxia ere Olentzerorekin joan zen opariak bilatzera. Iluntzen ari zen eta opariak ez ziren agertu. Olentzero, Pantxika eta animaliak Olentzeroren etxera joan ziren. Gau osoan pentsatzen egon ziren. Zer egin umeak bere jostailuak aurkitzeko.

Hurrengo goizean esnatu zirenean Olentzero konturatu zen basurdeak, untxiak astoak eta txakurrak etxean ez zeudela. Orduan Olentzeroren atean jo zuten eta zabaldu zuenean animalia pila bat agertu ziren, basurdeak, astoak, txakurrak, untxiak, txoriak, mendiko animalia guztiak. Animaliek pentsatu zuten guztien laguntzaz jostailuak berriro egin ahal zituztela. 3 egun bakarrik falta ziren abenduaren 24ko gauerako. Animalia guztiak, Olentzero eta Pantxika lanean hasi ziren jostailuak egiten.

Batzuk panpinak egiten, besteak suziriak, besteak opariei papera ipintzen. 2 egun eta gau lan egin eta gero opariak prest egon ziren eta guztiak oso nekatuta lo egitera joan ziren.

Abenduaren 24a heldu zen. Guztiak oso pozik esnatu ziren .

Pantxika eta Olentzerok animaliei eskerrak emateko gosari gozo bat prestatu zuten. Gosaldu ostean Olentzerok astoak eta opariak hartu zituen. Lan handia zuen opari guztiak banatzeko.